

Argitaratua: Asteartea, 21 Abendua 2021 13:26



Beasaingo udaletxean egindako aurkezpenean, bi udaletako ordezkariak izan dira edizio berri honen xehetasunak azaltzen. Lankidetzaz honen helburuak aurreko ekitaldietako berberak izaten jarraitzen dute: batetik, antzerki errepresentaziotara joateko ohitura sustatzea; eta bestetik, publiko berria erakartzea, gazteak batik bat. Lan horri ekiteko ezinbestekoa gertatu da borondateak batzea eta ahaleginak koordinatzea.

Urtarrilaren 14ean hasiko da Antzerki garaia programazioa

Azken eguneratzea: Asteartea, 21 Abendua 2021 14:36

Argitaratua: Asteartea, 21 Abendua 2021 13:26

Antzerki taldeak eta obrak aukeratzeko garaian kontutan hartutako irizpideak kalitatea, muntaia, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta obren arrakasta izan dira.

Sarrerak eta abonua

Aurtengo edizioari dagokionez 8 antzezlanek osatzen dute egitaraua. Horietatik bi izango dira soilik gaztelaniaz. Sarrerak 12 euroan izango dira salgai emanaldi bakoitzeko eta denboraldi osorako abonua salneurria 72 eurokoa izango da. Hau erosteko epea urtarrilaren 10a arte egongo da zabalik.

Abonuarekin, egitarauko emanaldi guztietara sartzeko aukera izango da Ordizian edo Beasainen izan. Edozein aldaketari buruzko informazioa jasoko dute, baita urtean zehar beste obra batzuen programazioari buruzkoa. Gainera, antzezlan guztietarako udalerri bakoitzeko antzokian esleitutako eserlekua mantenduko da.

Salmenta lekuak, Ordizian Herri Antzokiko leihatila eta Barrena jauregia eta Beasainen Usurbe antzokia izango dira. 10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi dituzten kultura talde, ikastetxe eta gisakoek prezio berezia izango dute, 10 euro, eta dagokion udaleko kultura sailean eskuratu beharko dituzte.

Programazioa

Beasaingo Usurbe antzokian zabalduko da esan bezala 2022ko “Antzerki garaia”ren egitaraua. Emanaldi guztiak 20:30ean hasiko dira.

Urtarrilak 14: “El Instituto T” (gazteleraz) Usurbe antzokian (Beasain). Zuzendaria: Gorka Martín. Antzezleak: Javier Antón, Gorka Martín, Jon Zabala

Urtarrilak 21: “Lehendakari gaia” (euskaraz) Herri antzokian (Ordizia). Zuzendaria: Begoña Bilbao. Antzezleak: Iker Galartza, Zuhaitz Gurrutxaga.

Otsailak 4: “Semea pixka bat motelago dabil soilik” (euskaraz) Herri antzokia (Ordizia). Zuzendaria: Fernando Bernués. Antzezleak: Miren Arrieta, Ane Gabarain, Klara Badiola, Mireia Gabilondo, Asier Hernandez, Ander Iruretagoiena, Xabi “Jabato” López, María Redondo, Martxelo Rubio, Jose Ramon Soroiz, Dorleta Urretabizkaia.

Otsailak 18: “Fake” (euskaraz) Usurbe antzokia (Beasain). Zuzendaria: Gorka Minguez eta David Caiña. Antzezleak: Maria Urcelay, Aitor Fernandino, Leire Ucha.

Urtarrilaren 14ean hasiko da Antzerki garaia programazioa

Azken eguneratzea: Asteartea, 21 Abendua 2021 14:36

Argitaratua: Asteartea, 21 Abendua 2021 13:26

Martxoak 4: “Kottauak” (euskaraz) Herri antzokia (Ordizia).

Zuzendaria: Getari Etxegarai. Antzezleak: Ane Gabarain, Mikel Laskurain.

Martxoak 18: “Kopaz kopa” (euskaraz) Usurbe antzokia (Beasain).

Zuzendaria: Garbi Losada. Antzezleak: Ainara Ortega, Asier Sota, Ainhoa Aierbe, Iñigo Aranbarri.

Martxoak 25: “Porno” (gazteleraz) Herri antzokia (Ordizia).

Zuzendaria: Maxi Rodríguez. Antzezleak: Anacelia Alvarez, Sanfro Cordero, Cristina Lorenzo, Roca Suarez.

Apirilak 8: “Bost minutun” (euskaraz) Usurbe antzokia (Beasain).

Zuzendaria: Begoña Bilbao. Antzezleak: Itziar Urretabizkaia, Andoni Agirregomezkorta.

Antzerki garaiaren esku-egitaraua Beasain eta Ordiziako etxeetan banatuko da eta bi antzokietan ere eskuratu daiteke.

[pdf Egitaraua eskuorria \(7.40 MB\)](#)

Urtarrilaren 14ean hasiko da Antzerki garaia programazioa

Azken eguneratzea: Asteartea, 21 Abendua 2021 14:36

Argitaratua: Asteartea, 21 Abendua 2021 13:26

The image shows a press conference for the 2022 Antzerki Garaia program. Two people, a woman and a man, are seated at a table with microphones. Behind them is a backdrop featuring the Beasaingo Udala logo and a large circular graphic. The table has a banner with the program's schedule for January and February.

Beasaingo Udala

Beasaingo Udala

ordizia herria

2022KO antzerki garaia BEASAIN-ORDIZIA

urtarrila

- 14** EL INSTITUTO *postdefinita*
20:30 BEASAIN - USURBE ANTZOKIA
Ekoizpena / Produccion: Leizorua Teatrua
- 21** LEHENDAKARI GAIJA *eskutua*
20:30 ORDIZIA - HERRIA ANTZOKIA
Ekoizpena / Produccion: Teatrua produktibak

martxoa

- 4** KOTIAUK *eskutua*
20:30 ORDIZIA - HERRIA ANTZOKIA
Ekoizpena / Produccion: Teatrua produktibak
- 8** KOPAZ KOPA *eskutua*
20:30 BEASAIN - USURBE ANTZOKIA
Ekoizpena / Produccion: Albia Teatrua
- 25** POENO *postdefinita*
20:30 ORDIZIA - HERRIA ANTZOKIA